


BERRIGARA


57. zenbakia

Jardun elkartea, Bergara

1992, martxoak 18




Xabier Aranburu museologoarekin berriketan



**Pintore
bergararrak
Italiara**



**Cuesta
irabazle
Gorlan**



**Triatloia:
Antzuolako
Taldea aurkeztu**



OPEL ASTRA BERRIA

**POTENTZIA
ADIMENTSUA**




OPEL

**TALLERES
OLA, S. L.**

Olabarrena Auzoa, z/g.
Tfnok: 76 33 44 / 45 / 46.
BERGARA (Guipuzkoa)
Erakusketa ARRASATEn:
Loramendi, 2. Tfnok: 79 05 86
DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA
ETA GOIERRI GARAIrako
kontzesionaria



OPEL KONTZESIONARI OFIZIALAK, HOBEAK ESPERIENTZIAZ.



Barrenkale, 3. BERGARA • telf.: 943-765919

**Pintxoak, eguneroko menua eta
karta bereziak ditugu
Betiko eta oraingo sukaldaritza**



ARGAZKI

Barrenkale 16 Tfnoa: 76 20 66



GALDE DEBALDE

Rosita Olañeta

Aurreko GALDE DEBALDEko erantzun zuzena
hau zen: Ariznoa eta Martin Deunaren Plaza
Rosita Olañetak idabazi du Argazkiko
SARIA.

**ZORIONAK irabazleari!!
Eta besteok animatu, eta erantzuna eman
aste honetako galderari!**

Urcelay
HARATEGIA

**GURE BASERRIAN
HAZITAKO TXAHALAK**

**Etxean egindako txorizo,
saltxitxa, odoloste, e.a.k**

Ibargarai 16, Tfnoa: 76 00 45 / 76 37 77



Zubikua

JANTZIDENDA

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 57

BERRIGARA

Argitaratzailea:

Jardun Elkarte

Errotalde Jauregia, 20.570

Bergara

Tfnoa eta Faxa: 76 03 97

Babeslea: Bergarako Udala

Laguntzailea:

Eusko Jaurlaritza

Erredakzioa eta maketazioa:

Eneko Azkarate. Eduardo Mendibil

Publizitatea eta harpidetzak:

Aitor Aranzabal, eta Edurne

Arenaza

Tfnoa: 760397

Erredakzio-kontseilua:

Iñaki Eraña, Gorka Elorza eta Alex Labaien

Kolaboratzaileak:

Jose Angel Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel Angel Elkoroberezar, J. M. Elexpuru, J. Oregi, A. Urzelai, Maripi Laskurain, Nerea Alzelai, Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, Mikel Lizarralde, Monika Belastegi, Mikel Elkoroberezar, Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña, I. Sorondo eta Leire Etxaniz.

Argazki laborategia:

B. Cantero, M. Leturia, J.A. Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, Jaime Garzia, Dani Santos, Patxi Retolaza, Kifü eta Pol-Pol Mendizale Taldea.

Komikia eta marrazkiak:

Josu Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa: Txantxangorri Taldea

Copyright:
BERRIGARA

Tirada: 3.000 ale

Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



Potrotaino eta Ceda el vaso musika taldeen kontzertua iragarri du Gaztetxeak ostiralerako. Piraña Concertsek Potrotaino ordiziarrek eta Donostiatik datozen Ceda el vasokoak bildu ditu oraingo honetan. Musikarekin gaua alaitzeko aukera. Ostira-lean, gaueko 11etan.

OSTEGUNA 19

• **Kontzertua:**
- Udal Musika Bandak L'entra de la murta (S. Giner), Euryanthe (C. Weber), Katuska (Sorozabal) eta Borgy and Bess (Gershwin) joko ditu, Novedadesen 12.30etan.

• **Eskubaloia:**
- *Bergara-Mutriku* (gazte neskak), 11etan.
- *Bergara-Arrasate* (senior gizonak), 12.15etan.

• **Futbola:**
- *Bergara-Tolosana* Agorrosinen, 16.45etan.
- *Bergara-Antoniano* (gazteak), 11.30etan.

LARUNBATA 21

• **Eskubaloia:**
- *Bergara-Deba* (senior gizonak), 19.00etan.

• **Pelota:**
- Zabala-Iturza/Etxaniz-Retegi IV., Retegi II.-Maiz II./Bengoetxea IV.-Arretxe eta Murga-Unzain-Irazola-Andueza V., Pelotalekuan 16.30etan.

• **Futbola:**
- *Bergara-Erain* (kade-teak), Ipintzan 11etan.

ASTEAZKENA 25

• **Hitzaldia:**
- *Familiaren garrantzia adoleszentzian*. Kultur Etxean, 6etan.

FARMAZIAK



19 Estella/Español (Arrasaten gauez).
20 Mozos/Irizar
21 Camacho/Amezua
22 Camacho/Ruiz
23 Puy/Morales
24 Guallar/Azcoaga
25 Estella/Español

ZINEA



Colegas a la fuerza

• **ASTEAZKENA:** 22.30.
• **OSTEGUNA:** 17.00, 19.30 eta 22.15etan.

La noche de los cristales rotos

• **OSTIRALA:** 22.30etan.
• **LARUNBATA:** 17.00, 19.30 eta 22.30etan.
• **IGANDEA:** 17.00, 19.30 eta 22.15etan.
• **ASTELEHENA:** 19.30.

OGIA



Konde Panad.

Euskalduna
Taberna

OSINTXU

ORTZI
Erretegia

ANGIOZAR Tfnoa: 76 22 68

ONENA
TINDATEGIA

Barrenkale 29, BERGARA

GURIDI Altzariak

Era guztietako altzariak

Artekale 8, Tfnoa: 76 31 02

GESTORIA EGUREN

M. Pilar Eguren Diez
Kolejlatutako administrazio gestorea

Simon Arrieta enparantza 3, behea,
Tfnoa: 76 21 65 - 76 24 45



BERGARA Karrozeria

Txapa - Pintura

Tfnoa: 76 12 31 Zubleta 46 Bergara



Zergatik ari garen fluorizazioaren aurka

Martxoak 1eko 49/1988 dekretuan agertzen denaren arabera, 30.000 biztanletik gorako herriak kontsumo publikorako urez ornitzen dituzten enpresa eta entitateek, urak fluoratzea ezartzen da. Urkuluko urtegia fluoratzeko lanak martxan daude, irailaren bukaeran "ur berri" hau geure txorroetan izango dugu. Hau ez da "gure" arazoa denon arazoa da. Horregatik eskatzen diegu herritarrei azal dezatela beren ezadostasuna eta jo dezatela kontsumitzailearen bulegora, udaletxera, mankomunitatera...

Eguzki, fluorazioaren aurka zergatik dagoen jarraian azaltzen dizuegu:

- Edonola medika gaitzabela onartzen ez dugulako. Fluora toxikoa izanik, inork ere ezin du segurtatu etorkizunearan ondoriorik ekarriko ez duenik. Nortzuk kontrolatuko dituzte dosiak? Medikuek? To, beti betidanik geure burua ez dugula gure kabuz medikatu behar esaka eta orain indarrez sartu nahi digute botika. Lagun batzuentzat ona izan daitekeena denontzat ona izan behar al du?

- Gaixotasunik ez dakarrenik demostratu ez dutelako. Egia esan, ur fluoratuaren kontsumoa eta gaixotasun askoren indize igoera lotu izan dira.


- Gure ingurunea gehiago kutsatzea delako. Gure etxeetara iristen den ur guztia ez dugu edaten, noski. Irensten ez duguna -eta daraman fluora- itsaso, lur eta ibaietara joango da, ingurineari elementu kutsakor berria erantsiz.

- Benetako arazoa konpontzen ez delako. Arazoa ezkutatu baizik ez du egiten. Fluorazioari uko egiten zaion unean agertzen da berriro ere kariesa. Azken batean, dutxatu beharrean kolonia erabiliko bagenu bezalakoa da. Gaitza errotik sendatu behar da, ez ondorioetatik.

- Ur osasungarria jasotzeko eta osasun plangintza prebentiboetan parte hartzeko herritarren eskubidea defendatzen dugulako.

Eguzki

Tiira ba!



Josu Okina

□ **Igeri ikastaroa**
Udal Kirol Zerbitzuak
 apirilaren 2tik
 maiatzaren 7ra
 bitarteko astearte eta
 ostegunetan 3 eta 4
 urteko umeentzako
 igeri ikastaroak
 antolatu ditu. Klaseak
 17.45etatik 18.30etara
 edota 18.30etatik
 19.15etara, 45
 minutukoak izango
 dira, taldeak gutxienez
 4koak eta gehienez
 6koak izango direlarik.
 Izena emateko epea
 martxoaren 31n
 bukatzen da.

□ **1.952**
 Urte horretan jaio eta
 Bergaran bizi edota
 izatez bergararrak
 diren pertsona guztiei
 apirilaren 4ean *anaiar-
 teko afaria* antolatu
 nahi dela jakin arazten
 zaie. Izena emateko
*Gracian Agirre, Biltoki-
 haltzariak* edota
Azkarate estankora jo
 dezakezue.

Herriko 25 bat margolarik beren lanak erakutsiko dituzte Italian

Herriko pintoreak hasi dira jadanik Ortonovoko (Italia) margolariekin uztaila-iraila bitartean egingo duten hartu-eman prestatzen. Hasteke, hartu-eman honen aspektu desberdinez arduratuko diren hiruzpalau batzorde sortu dituzte, hala nola sponsorrrak bilatu, garraio asuntua edota egin nahi duten katalogoaren gaia eramango dutenak.

Izandako lehen bileretan bildutako jendearen arabera, badirudi herriko 25 margolari ingururen lanak izango direla Italiako erakusketan. Fetei dagokionez, ziurtzat ematen da erakusketa uztailaren 2. astean hasi eta irailaren 7ra arte izango dela ikusgai Ortonovon.

Italiarrak, berriz, datorren urteko urtarrilean



izango genituzke Bergaran. Horrekin lotuta, Luigi Corsanini Ortonovoko kultur arduardunetako bat apirilean Bergaran izango da fetxak zehazteko asmoz.

Katalogoa

Bergararek han eza-gutzera emateko duten

helburu nagusietako bat katalogo bat argitaratzearena da. Margolarien asmoa, honelako muntaia finantziatu ahal izateko behar diren sponsorren bila lehen bait lehen hastea da. Udalak milioi bat pezetako dirulaguntza emango diela iragarri du.

Mendia protagonista

Aste honetako protagonista mendia izan dugu, dudarik ez. Pol-Polaren 50. urteurrena ospatzeaz gain, mendi zinemako zikloa izan da astelehenetik asteazkenera arte UNEDeko aretoan. Kutxak antolatutako zine-emanaldi hauek, urtero bezala, ikusmin haundia sortarazi dute eta emanaldi guztiak oso ikusgarriak suertatu dira. Bestalde, Jon Lazkanok ere astelehenean eman zuen Kultur Etxean Juan Carlos Tamayorekin batera Patagoniara egindako espedizioaren diapositibemanaldia. Hemen ere jende dexente bildu zen hango kontuak jonekin komentatzeko.



Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

Tfnoa: 76 19 54 BERGARA
 Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE



ETXAGI

Jatetxea

Afariak - Bataioak
 Jaunartzeak
 Eguneko menua
 Gosariak - Bazkariak
 Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12

□ **Elikadura**

Udaleko *Emakumearen Laguntzarako Zerbitzuak* eta *Eroskik* antolatutako *Elikadura eta teknologia berriak* ihardunaldien barne, datorren astelehenean, hilak 23, 2.000. urteko *janaria* izango da aztergai arratsaldeko 4.30etan Kultur Etxean.

□ **Odol ematea**

Bergarako *odol emaleek* dei egiten dute asteazkenean, hilak 18, arratsaldeko 7etatik 9etara Seminarioko lokalean egingo den odol ematean parte hartzeko.

□ **Hitzaldia**

Datorren asteazkenean, hilak 25, *Julen Masats Alaves* taldeko prestatzaile fisikoak *Futbolariak lehiaketan egiten duen lan fisikoaren balorazioa* gaiaren gainean hitzaldia emango du arratsaldeko 7.30etan Kultur Etxean.



Cuesta irabazle

Iñigo Cuesta (Branik) bizkaitarrak lortu zuen garaipena domekan korritutako XVIII. Gorrako Bizikleta Igoeran. Cuesta izan genuen bai onena Gorrako aldapetan eta erraz irabazi zuen helmugan; errekorra hobetu ez arren, 12 segundu atzera zizkion bigarren gertatu zen Julio Barcinari (Baque) eta 19 Kaikuguresako Iosu Odriozolari. Beti bezala, borroka handia izan zen hasiera hasieratik; lehenbiziko eraso Mikel Leturia bergararrak egin bazuen ere, handik gu-

txira Bustosek tropeletik salto egin zuen bere atzetik Bizkarra eta Cuesta eramanez; ondoren Cuestak eraso definitiboa egin zuen eta Barcinak ezin izan zuen Cuesta harrapatu.

Beteranotan bestalde, Juan Carlos Toribiok irabazi zuen eta Iñaki Igarza bergararra laugarren izan zen. Afizionatuetan, Leturiaz gain, Igor Altunak eta Garitanok korritu zuten proba. Azkenik aipatu behar da eguraldi kaskarratik bestetan baino jende gutxiago bildu zela Gorlan.

□ **Erakusketa**

Igandera arte ikusgai izango da Kultur Etxean *Jubilatuen eskulanen erakusketa*. Astebukaerako ordu-tegia 12etatik ordubietara eta arratsaldeko 6etatik 8etara izango da.

□ **Salto del Negro**

Kanarietako Salto del Negro espetxean diren euskal presoek, *Xabier Oregi "Panti"* bergararra tartean, bukatutzat eman dute otsailaren 3tik mantentzen zuten gose greba.

□ **Argazkiak**

Pol-Pol Argazki Taldeak eta *Kultura Batzordeak* antolatutako herri mailako diapositiba lehiaketara lanak aurkezteko epea martxoaren 26an amaitzen da. Bestalde, iganderako, hilak 22, euria ez bada behintzat, Lekeitiora irteera kolektiboa iragarri du Pol-Pol Argazki Taldeak goizeko 8etan Goiko Plazatik.

LONBIDE

OINETAKOAK



BIDEKURUTZETA 7,

Tfnoa: 76 10 57

BERGARA

TOKI-EDER

Taberna

Pintxoak eta eguneko bazkariak

Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65
BERGARA

KONDE

PANADEROKUA



Burdiñate 1, Tfnoa: 76 02 57

Lagunartean igaro zuten Pol-Poltarrek 50. urteurrena

Harrera oso ona izan zuen Pol-Polaren 50. urteurrena ospatzeko asteroko **Berrigararekin** batera atera genuen ale bereziak. Asteroko errebistarekin banatu zirenaz gain, beste bostehun ale inprimitu genituen Bergararik kanpo bizi diren Pol-Poleko bazkideentzako.



JABIER ARETIO

Meza ostean txorizoa eta salda banatu ziren, eta ondoren argazkietarako denbora ere izan zen. Ikusten denez helduagoen artean, gaztetxo ugari ere izan zen San Martzialen. Elkartearen etorkizuna ziurtatuta dago.



Koldo Pereira eta Andoni Larrañaga zinegotziek Bergarako Hiribildu Agiria eman zioten Pol-Poleko presidenteari.



JABIER ARETIO

Pol-Polek, bizirik dirauten elkarteko talde sortzaileko Antonio Raizabal, Anjel Jauregi eta Luis Bikuña omendu zituen (ezkerretik eskumara, jarrita daudenak), eta baita Felix Iñarra lehen presidentea (zutik eskumaldean). Bere ondoan, Pako Iriondo Euskal Federazioko Presidentea eta Andoni Larrañaga.

Pol-Poleko lehen eta azken presidentek, Felix Iñarra eta Andoni Larrañaga. 50 urtetan beste 15 Lehendakari izan ditu elkarteak.



JABIER ARETIO

ZABALETA ERROTULOAK

Mota guztietako errotuloak.
Fatxadak, eskaparatek...

Amilaga (Gasolinera ondoan) Tfnoa: 76 57 34

ELKAR

ELEKTRAGINTZA

Mota guztietako instalazioak

76 00 00 BERGARA

Bergarako museologoarekin:

Xabier Aranburu:

"Bergarako historia oso aberatsa da"

Xabier Aranburu donostiarra Bergarako museologoa dugu urte hasieratik. Bere lana, etorkizunean Bergaran eraikitzeke asmotan dagoen museoan kokatuko den materiala bildu eta behar den moduan gordetzea da. Horrez gain, Bergarako ondare artistikoaz arduratzen da. 29 urte ditu, Historia Lizentziatua Donostiako EUTGn, museologia ikasketak burutu zituen Florentzian, Gipuzkoako Diputazioak emandako beka batekin.

Donostiako San Telmon ere ibilia da. Lehendabiziko hiru hilabeteak lanean eman ditu dagoeneko... Berarekin izan gara bere lana gertuagotik ezagutzeko asmoz.

- Nola sortu zitzaizun Bergarara etortzeko aukera?

- Bergarako Udalak museologo bat kontratatu nahi zuela enteratu nintzen eta horrelako postu bat ateratzea zoritarrez oso normala ez dela kontutan izanik..., enteratu nintzenez, berehala apuntatu eta lortu egin nuen.

- Eta Bergara eta bere historia ezagutzen zenuen?

- Bergaran bizpahiru alditan bakarrik egona nintzen eta ez nuen oso ondo ezagutzen. Hori bai, Bergarako Erret Mintegiaren historia oso ondo ezagutzen nuen, baina Bergarak duen ondasun artistikoa, oso aberatsa dena, eta guzti


hori ez nuen ezagutzen.

- Beraz ze inpresio hartu zenuen Bergaran lanean hasi zintenean?

- Bergarara etortzen zarenean, berehala konturatzen zara herri honek historia oso aberatsa izan duela. Jauregiak, eleizak, etxeak, kaleak... ikusi eta berehala konturatzen zara herri honen ondarea oso aberatsa dela.

- Hemen egin duzun lehen lana zein izan da?

- Lehendabiziko urte honetan egin nahi dudana zera da, Bergarako errealitatea gertu-gertutik ezagutu eta bere historia eta ondasun artistikoak ondo ikasi. Aurrerago egin beharreko lanak ondo burutzeko, ezinbestekoa zait



Bergara ondo ezagutzea.

- Ikasten ari zarela esan duzu, zein iturritatik ari zara ikasten?

- Liburuetatik eta baita herriko etxe, jauregi eta ermitetara egiten ari naitzen bisiten bitartez ere.

museoan hasiera-hasieratik egin beharreko lana, daukagun bilduma ezagutzea da. Honek esan nahi du, bilduma hori katalogatu eta inbentariatu egin behar dela eta horretan dihardugu orain. Etorkizunean za-

Bergarako etxeetan sakabanaturik egon daitezkeen Erret Mintegiko piezen donazioa museoari egitea eskatuko nuke

Oso lan polita eta interesgarria benetan. Horrez gain, aurtengo egitasmoa prestatzen ibili naiz. Proiektu horretan bi arlo daude: alde batetik Erret Mintegiko Museoa eta herriko ondare artistikoa, bestetik. Erret Mintegiko

baldu nahi dugun museoan nola antolatuko dugun jakiteko, bilduma ondo ezagutu behar dugu lehenengo.

Museoaren bildumak bost atal ditu: aparailu zientifikoak, giza anatomiazko modeloen atala,

zoologia, fosilak eta mineralak. Aurten, bostatal horietatik hiru, txukuntasunez klasifikatuko ditugu.

Bestalde, bildumaren kontserbazioa ziurtatzea, hain zuzen ere, hezetasuna eta klima egoera txukuntzea oso inportantea da.

Behin bilduma eza gutzen dugunean eta bere kontserbazioa ziurtatzen dugunean, orduan, hasiko gara museo berriaren kokapenaz eta guzti horretaz hitzegiten, baina aurretik lan piloa egiteko daukagu.

- *Museo berrian edo beste tokiren batean jartzeko, herrian sakabanaturik dauden ondasunak biltzeko asmoak ere agertu dituzue...*

- Bai, horrela da, badakigu Erret Mintegiko pieza batzuk Bergarako etxeetan sakabanaturik egon daitezkeela eta nik, nere aldetik, pieza horien donazioa museoari egitea eskatuko nuke, zeren, horrelako pieza batek, bilduma baten barruan hartzen du bere zentzua. Nere etxeko telebistaren gainean badaukat, oso dekoratiboa izango da beharbada, baina ez du zentzurik hor gordeta edukitzeak, bere testuingurua galdua dauka eta.

Bestalde, eraikitzen ari diren azoka plaza

berriaren sotoan arte biltetgia jartzeko asmoa daukagu, Bergarako ermita eta beste zenbait tokitan, egoera kaxkarrean dauden ondasunak biltzeko asmoa.


- *Zergatik da Bergarako Erret Mintegiko museo estatuan egon daitekeen bere motatako museorik garrantzitsuenetarikoa?*

- Zientziaren aldetik oso bilduma aberatsa da. Gainera, XVIII. mendetik XX. mendera arte egin da eta hiru mende horietan, pieza ezberdinak bildu dira. Beraz, alde batetik,

borategirik garrantzitsuenetarikoa zuen...

Horrez gain, gaur egun museoak biltzen dituen piezak, bai kantidadean zein kalitatean aldetik maila haundikoak dira. Gainera, Euskal Herrian zientzia eta naturari buruzko museo asko ez dagoela kontutan hartu behar da: Leioan badago Medizinari buruzko bat, Gasteizen, Natur Zientzietakoa ere badago, baina hor ez dute aparailu zientifikorik...

- *Eta hain aberatsa izanik, zergatik gorde da hain gaizki?*



historiari dagokionez oso garrantzitsua da, bilduma Erret Mintegia sortu zenetik egin delako, eta jakina denez, Bergarako Erret Mintegiak XVIII. mendean, Europako la-

- Hori zoritxarrez sarritan gertatzen da... Kontutan izan behar da erakunde ezberdinen eskuetan egon den museoak izan dela, gero diru kontua ere hor dago: gauza

bat seriotasunez hartzen ez bada eta behar beste diru ematen ez bazaio ez dago ezer egiterik... Museo bat gizarte eta kulturaren aldetik oso inportantea da, baina ez da hiru txakurraundirekin eta bi hilabetetan egiten.

- *Egin beharreko lanak burutu ondoren Bergaran museo noizko izango dugun jakiterik badago?*

- Ez, ez..., hori epe luzearako lana da. Ganorazko zerbait egin nahi bada, prisarik gabe egin behar ditugu lanak. Museoak ondo antolatuta behar da, gidoia egin behar da, erakusketa soila izan ez dadin. Museoak ikustera datorrena, piezak ikustera bakarrik ez dadila etorri, museoak biltzen duen historia ere ikus dezala, horixe da helburua. Eta hori egiteko, etengabe baina lasai egin behar dugu lan bestela txapuza bat egiteko arriskuan eror gaitzke.


- *Bukatzeke Xabier, Bilbon eraikiko den Guggenheim polemikoari buruz zer eritzi duzu?*

- Guggenheim bilduma, XX. mendeko arteari buruzko arte bildumarik onena denez, Euskal Herrira ekartzea oso positiboa da, baina herri kulturari ematen zaizkion diru laguntza guztiak mufriztea ez dago ondo.

LARREA

TABERNA

**Kale Barren 17
ANTZUOLA**



BERGARA

Tfnoa: 76 25 99

SURPE

Taberna

**Erdiko Plaza, Tfnua: 76 64 97
ANTZUOLA**

Bildu dudan sortatxotik...

Ogigilearen beste kontu batzuk

Antonio Urzelai

Urte batzuek bizkarrean dituzuenok, gogoratuko zarete noski, Zubieta auzotik Mugerza gainera-ko aldapatxoak, igoera oso bizia zuela.

Karreteroei, gurbibide honetan hainbat arazo sortzen zitzaizkien, batez ere, asto eta zaldi abereekin lan egiten zutenei. Lehenengo aldiz, "galipota" agertu zenean bidaietan, hondarrarekin nahastu gabe, bera bakarrik zabalitzen zuten, eta tirakako abereak labandu eta erraz erortzen ziren lurrera.

Ikatz saltzaile bat, gurdia ongi beteta, aldapa igotzen ari zela, erori zen bere "mandakoa". Belaun biek in bea jota gelditu zen animalia.

Ikatz saltzailea, beso biak jasota, dehiadarka, laguntza eske. Lehen aipatutako ogi banatzaileak, ikusirik, ikatz saltzailea guztiz larriturik, irtenbide hauxe eskeini zion:

- Mandakoaren gisako zazpiko bat sartu iezaiozu azpian, eta, oso erraz jasoko duzu.

- Kaiku halakoa! Zer uste duk hik, "briskan" ari naizela hemen?

* * *

Donostian bazen ogiginen batzar nagusi bat. Urtero, guttienez, biltzen ziren herrietako ogigileak bertan. Herri bakoitzak bialtzen zituen bere ordezkariak. Batzarrera deitutako egun horretan, gure Kandido ere han zegoen presente, une berean iritsita.


Agertu zen bertara, beste bergar bat, zapata zapaltzailea. Donostia kapitaleko saltokian ikusirik dirubideak sortzera. Hain gizon ezaguna zenez, agertu zuen gure ogigina eta galdetu:

- Gaur etorrita, noski?

- Bai zera!, etzi, hiru egun etorri ginela, eta, hemen etziok arreglurik. Arratsaldean, Gobernadorearekin jaukagu batzar berezia, han ikusi beharko zer gertatzen dan.

- Bueno, bueno ez dadila okerririk sortu.

Zapateroa, bera ere adarjotze gisakoa izanik, konturatu zanian, pena haundia omen zuen, despistete haretan erori beharra...



Erakusketa

Adbay
Cristopher

martxoaren 3tik 30era

NAHIKARI

Mahasterreka 20,
Tfnoa: 76 57 71
BERGARA

AFA - BI

Manufakturak, S. L.

P.V.C. Arotzgintza eta aluminioa
Veka Sistema (Alemaniarra)

San Lorenzo z/g Tfnoa: 76 50 92 - 76 21 59 BERGARA

ARRASATEARRA

Gure berezitasuna bazkariak.
Eguneko menua daukagu.

Taberna

Zubiaurre 22, Tfnoa: 76 20 19 BERGARA

San Jose (San Joxepe)

Santamañako hilarria

San Joserren ermita Santamaiñatik San Martzial bi-dearen hasierako aldapak arnasa pixka bat hartzen duen tokian zegoen. Gaur, San Joxepe bihurtu da. 1.728garren urtean Bergarako Udalak San Jose ermitaraino bide bat zabaltzeko baimena eman zuen. Gero, eta bere ondoan, Santamañako hilarria egin zen.

XII-XVIIIgarren gizalditik aurrera hasi zen elizetan hilobiratzen. Bergarakoetan mantendu dira, edo izan dira oraintsu arte behintzat, hilobietako tokiak, bere zenbaki eta guzti. Azaroko difuntuen egunean ikusi ditugu etxekoandreak beren aurrekoen hilobia izandakoaren aurrean otoitzean, argizaiola piztua zutela.

1.515garren urtean San Pedroko Eleizan 229

hilobi zeuden, eta Santamañakuan ere beste hainbestetsu izango ziren, baserri askotakoa bait zen, Osintxukoak tartean. Sevillan eta horrelako tokietan bizi ziren garai haietako bergarar aberats batzuek ere hilobiratu zituzten San Pedron, beren testamentuetan horrela eskatu bait zuten: "aurrekoen hezurtegian hilobiratuak izatea".

Noizean behin eleizetako hilobiren baten salerosketa egiten zen. Inoiz eleizan utzitako gorputza lehenbailehen hilobiratzeko ere eskatu zen zerion usaiarengatik. Gehiagotan azaltzen da haserrea hilobien gainetan hainbeste jende zebilela eta, zapi beltz, kandalak eta abar zeudela, elizkizunak behar bezela egiteko zailtasunak topatzen zituztelako.



San Joxepe baserrian bertan omen zegoen ermita.

Eleizetan hilobiratzeko ohitura XVIIIgarren gizaldian amaitu zen gehien bat, eta San Pedroko hilarria Mintegin egin zuten bezela,


Santamañakua San Joxepen, bertako ermita hilerri berriarekin kapila bihurtuz.

Imanol Sorondo

LARRAÑAGA
eta ZUBIA
Banatzaileak

Errioxako ardoak, olioak,
esnea, lejlak

Martokua 32, tfnoa: 764594



JAUJA KIROLAK
Irizar 2, Tfnoa: 76 14 95

Taberna kafetegia

EHIZTARIAK
LOS CAZADORES

Kafea da gure berezitasuna

Zubieta 26, **BERGARA**

JUBILATUEN
TABERNA

• **Bazkari eta afariak**

Tfnoa: 76 62 71 ANTZUOLA

REMENTERIA
Altzariak

Egongelak / logelak
Aukera guztiak / enkarguak

Artekale 6, Tfnoa: 76 13 29

IGARZA
MERZERIA
LENZERIA


D. IRALA 5
Tfnoa: 76 24 88 BERGARA

Zubiberri

Sagardotegia

- Eguneko menuak
- Kazuelitak


San Anton Tfnoa: 76 41 06



**ETXE-
-AUNDI**

**Negozio bazkariak
E z k o n t z a k
B a n k e t e a k**

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI


FS 
oto istema

ARGAZKIAK ORDUBETEAN

- ✓ Diapositiba errebelatzeak
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta bodetako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, Tfnoa: 76 00 50

San Jose eguna ospatzen duzue etxean?



Ibon Mujika
18 urte, ikaslea

Familiakoen artean erregalo bat egiten diogu aitari, besterik ez.




Miren Arrieta
56 urte, etxekoandrea

Bazkari on batekin ospatuko dugu eta aitari erregaloren bat egingo diogu.



M. Victoria Virumbrales
36 urte, langilea

Guk zubia hortik zehar joateko aprobetxatzen dugu normalean. Senarrari opariren bat egiten diot.




Heliodoro Garcia
59 urte, langabetua

Ez dugu ezer berezirik ospatzen, ez bazkaririk, ez erregalorik, ez ezer...

Biltoki

GAUZAK ERRAZ JARRIKO DIZKIZUGU!

 **xey**

Sukalde eta bainugelarako mobleria
Diseinua eta goimallako kallitatea
5 urteko garantia

San Pedro z/g
Tfnoa: 76 34 00

PHILIPS



Teknologia eta diseinua
TB-BIDEOAK eta HI-FI MATCH-
LINEekipoak
K-200 telebista berriak

Barrenkale, 6
Tfnoa: 76 25 96

dekorazioa

Estiloko altzariak eta gazteentzakoak
Alfonbrak. leiho-oihal, narruzko sofak,
tapizak,...
apaingarriak

San Martin 2
Tfnoa: 76 43 51



Independen- tziari bai!

Azken astebateotan Gasteizko Gobernuak "Euskal Lehengaiak" izenburuko sekulako publizidade kanpaina bultzatzen dihardu. Helburua, nabaria bezain gaitza, Europa ekonomikoan buru belarri sartzerakoan gure herriak etorkizunik baduela adieraztea eta gure etorkizuna indar propioetan datzala aditzera ematea. Ez da, alajaua, lan makala!

Denboran bakarrik bada ere, kanpaina honek euskal abertzalegotik gure herri burujabearen independentziaren alde bultzatutakoarekin koinziditu du. Batzuk gure herriak etorkizuna gure jendearen balioa duela adierazten duten neurri berberean, beste batzuk Euskal Herriak gizarte aske eta prosperoa eraikitzeko burujabetasuna eta independentziaren bidetik abiatu behar duela defendazen dute. Ez dut asmo kontrajarriak direnik esango, sinez gure jendearen balioan sinesten dudalako, baina nolabait gure herriak eman behar dituen hurrengo pausuen bi definizio desberdinen erakusgarritzat har ditzakegu: gaur egungo Europaren aldeko apustua, estatu eta merkatarien Europaren aldeko jarrera, bata, eta zapalkuntzapetik sortzen ari diren herri askeek eraikiko duten Europaren aldekoa, bestea.

Lehendabizikoa biziki gorrotatzen dudalako eta besteak berriz ene abertzaletasuna eguneroko lanean gauzatzera naramalako, nik independentziaren aldeko apostua egin nahi dut. Horixe baietz!

Martin Garitano



Ford Fiesta urdina

Ford Fiesta urdinarekin seguru ligauko nebala esaten jonen kuadrilako lagunak kotxia erosi ta egun batzutura, baina bittik bat: urdin ilunegixa ekarri najona edota zihero arlotia, motela eta zatarra non. Ixa bost urte pasau ditun eta granoik be ez jonau ikusi.

Ondio okerraua dana. Errealan insignie jaukan kopilotuan jarleku aurrian. Goierri alde hortan ibili ez baina sarri pasatze gaittun eta lur horretan harekin errezaue izengo ete zonan. Irabazik batere ez eta haura begixen aurrian ikusi biher egunero...

Lagun batzuk ondio be lehenago esandakuai eusten segitzen jone: "Kotxe honekin derrigor ligau biher dok, moteil. Tubo eskapia ataratzen hasi dan zaratiakin gainera...". Zera erantzuten jotsanet: "Ez jakixat ba burrundara kontua izengo dan, Honi x-ak, r-ak, v-ak eta numeruak falta jakok".

Oin, nere Ford Fiesta urdina azkenetan jabilen. Berrehun mila kilometro pasatxo jauzkan eta laister geldittuko don. Berrixa erosterakuan ez najoian lagunei kaso eittera. Nahixo jonat zeuei zuzentzia.

Zuetakon batek ze koloretako ze kotxe erosi biher doten esatia nahi baldin bajostan, kalian ibiltzen naun eta bestela, Antzuolako aldabadun ate berdia daukan etxe bakarrian bizi non. Mutilei kasu ititai laga biher jotsanat.

Oharra: hau don hogeitazazpi urteko mutilan ganoria.

Joseba Lezeta

14-18 urte bitarteko gazteentzat

BERTSO IKASTAROA

**Martxoaren 26ra arte luzatzen da
izen emateko epea.**

**Izen ematea: JARDUN ELKARTEAN (Kultur Etxean) edo
76 03 97 tfnora deituz.**

Ikastaroa Bertso Eskolakoak emango dute.

Ordua eta eguna partehartzaileen artean erabakiko da.

Beheko Taberna

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

TABERNA ZAHARRA

Jatetxea

Bazkariak eta afariak

Tfnoa 76 21 21
ANGIOZAR

ANDUZU

ERAIKUNTZA
MATERIALEN
BILTEGIA

- Azulejo erakusketa
- Onduline
- P.V.C.
- Blokeak
- Pinturak

Telleriko Lana Pol/Ind. San Juan
C-1-B Pab. Tfnoa: 76 01 41
Faxe: 76 00 58 BERGARA

Hagin klinika

Idoia Iriarte Irureta

Artekale 1, 1. C. Tfnoa: 76 01 65



Ikusi eta ikasi


Argazkian agertzen diren Udal Kirol Zerbitzuko atletismo eskolako neska-mutilak Donostiako Nazioarteko Atletismo *meetingean* izan ziren oraila dela bi aste. Marian Valdivieso monitorea Jaime Garziaren laguntza zuzentzen duen eskolan, guztira, 6 urtetik 14 urtera bitarteko 60 bat lagur dabilta. Taldetxo bat Carl Lewis, Morceli... etab. luze bat gertutik ikusteko asmoz Anoetara hurbildu zen. *Idolo* hauetatik gertuen Jaime Garzia izan genuen, epaile-lanak egitea *tokatu* bait zitzaion. Horrela bai gustora la egin!

Aretxagazeta

Arrasateko AED edota Bergarako JARDUNen erduei jarraituz, Aretxagazeta Elkarteak berriro ekin dio Aretxagazeta aldizkaria argitaratzeari. Jokin Antxia zuzendari eta Agurtzane Elkorro erredakzio lanetan direlarik, oraingoan, 12 orritako hamabostekari hau erabat itxuraldatututa atera zaigu. Ongi etorria atxabaltarrei!



- Elkarrizketa: Oxigeno barik Everestera
- Ihauteariako argazkiak
- Aretxagazeta



GAZTEEN MODA! Bizkai Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa; 77 14 24



❑ **Karnabalak elurretan**

Institutuko ikasle-talde hau eskialariez mozorroto eta Frantziako **Cauterets** ski estaziora joan zitzaigun karnabalak igarotzera. Denboraldiko azken elurrak aprobetxatuz, Frantziako Pirineotan 24 ikaslek eta 3 irakaslek 5 egun primeran pasa dituzte eta, dirudenez, *osorik* itzuli dira Institutura. Lastima Albertvilleko joku olinpikoetan parte hartzeko berandu heldu zirela!!

❑ **Plaka**


Astelehenean Justo Garate jaioren Barrenkaleko 27. zenbakiko etxearen atarian plaka berri bat jarri zen, Udalak orainarte zegoena ez zela ondo ikusten eta **Justo Garate** omendu nahian hartutako erabakia- ren ondorioz.



Plakan zera irakurtzen da: "*Justo Garate Arriola jauna sendagile-kulturgizon ospetsua etxe honetan jaioren 1900. go dagonillaren 5ean*".


Zertan dihardute ba?

AMAIA ZABALETA



UNEDen eta Donostiako Fakultatean Zuzenbide ikasketak burutu eta JARDUNeko zuzendaritza batzordeko partaidea dugun 30 urteko bergarar hau EHNE nekazarien elkarteko abokatua izendatu dute.

ION ETXABE



29 urteko bergarar honek irabazi zuen pasa den martxoaren 8an Ekai-Zuazun jokaturako Bergarako XII. Ehiza Txapelketa, bere atzetik Manuel Tejada eta Jose Mari Urriategi sailkatu zirelarik.

ileapaindegia
eder gela
disdira
Mahasterreka 7 • Tfnoa: 76 00 55

SUBIJAI
Gazteentzako moda
Irizar 1, Tfnoa: 76 42 41

ITXASMENDI
Taberna
Barrenkale 36
Tfnoa: 76 50 64
BERGARA

Umore giroan

Kerizia egongo litzakek

Rufoplaentxiarra oso laguna zan Katu Beltzana. Mutil-zar eginda gero ezkondu zan plaentxiarra, eta beti zeguan eskatzen Marzelori etorri zedilla Plaentxiako bere etxia ikustera. Azkenian jua zan ba Marzelo eta etxia ikusten zeguala, esaten detsa Rufok:

- Marzelo, begiratik gorutz, or dauaz urdai azpiko eta lukainkak.

Marzelok, baña, lurrera bakarrik begiratzen zeban. Eta lagunak:

- Begiratik gora gizona, or daok zer ikusixa.

Ta Marzelok erantzun:

- Or goixan zer balegok, emen beian kerizia agertuko litzakek.

* * *

Gastuari begiratu barik

Ikusi dau Kaietanok oso zeken famia zeukan industrial bat, bera bakarrik, Arrateko bidetik gora. Au izan zan Kareaga-ren "Komentarixua" -An joiak gure Urlixa Arrateko Kamiñutik gora gastuari begiratu barik!!.

* * *

Aman altzorik bez!

Kaietanok ikusten zitxuanian ume txikixak euren kotxetxuetan amak bultzatuta esaten zeban:

- Gu be zeozer izango giñuazan alako kotxietan txikitxatik oitxu bagiñuazzen. Guk, amaren altzorik be ez genduan izan: ama jostuna zuan ta!!.

Pedro Zelaia

Antzinako kontuak

Udal artxiboko agiriak

Gizarte tradizionalan inportantzia izugarria ematen zitzairen agiri publikoei beraietan oinarritzen bait ziren eskubide eta lehentasun garrantzitsuak. Agiriok gordetzea ez zen beti erraza izaten eta honetarako bai partikularrak eta bai erakunde publikoak kutxa sendoak eduki ohi zituzten, burdinazko ertzekin eta kandadu gogorrek.

Agiriok galdu edo manipulatu ez zitezen artxibuok pertsona desberdinen eskuetan zeuden giltza diferenteak izaten zituzten. Bergarako udal artxiboari dagokionez, agiriak eta liburuak hiru giltzaren pean gordetzen ziren: bata Alkateak zuen eta beste biak kaleko bi Errejidoreek, 1.652ko ordenantzaren arauera.

Hasieran prekauzio neurri komenigarria izan zitekeena problema iturri haundi bihurtu zen. Horrela paperen bat kontsultatu behar zenean hirurak etorri behar izaten zuten eta, hauek, aspertuta, elkarri uzten zizkieten giltzak, eta honek paperen nahaste borratea edo galtzea ekarri zuen.

XVIII. mendearan erdi aldera udalak, legedia saltatuz, artxiboazain perpetuo bat izendatzea erabaki zuen, behatzez, Herriko Handikien artetik, eta horrela urte gutxian nahastea ordena bihurtu zen eta artxiboa, esaten zenez, erudizat har zitekeen.

Juantxo Madariaga

EDEL tapizdenda


Etixerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu:

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoia, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14, BERGARA

SANTOS IRRATI - TB



TB-Soinua-Bideoa
Antena instalazioak
Kanal Pribatuak
Sukalderako altzariak
Argiztapenak

Mahasterreka 2

Tfnoa: 76 26 10

BERGARA

Antzuolako Triatloi Taldea aurkeztu da

Taldea hiru antzuolar eta 9 bergararez osatuta dago

Astlehenean egin zuen bere aurkezpena Antzuolako Triatloi Taldeak. Eskia, igeriketa, korrika, eta bizikletan ondo aritzea eskatzen duen kirol honek gero eta jarraitzaile gehiago ditu gure artean.



Taldea partaide gehiago izateko prest azaltzen da.

Antzuolako Triatloi Taldeak, *i2* Kirolakentzako laguntzarekin, neguko zein udako triatloi denboraldiei egin nahi die aurre. Helburu horrekin, 12 lagunez osatutako taldea lortu da; Xabier Azkarate, Mikel Larrañaga eta Aitor Peña antzuolarrak eta Aiert Lizarralde, Jon Ander Aranzabal, Juan Martin Elexpuru, Eduardo Jauregi, Javier Arevalillo, Juan Balenziaga, Matias Varela, eta Aitor Unamuno bergararrak izango dira hementik iraila aldera arte triatloi proba ezberdinetan arituko direnak.

Jadanik neguko denboraldiko zenbait proba jokatu eta emaitza bikai-

nak lortu izan dira; Juan Martin Elexpuru joan den astean Reinosan jokatutako Espainiako Txapelketan bigarren izan genuen beteranotan eta Xabier Azkarate antzuolarrak, berriz, laugarren postua eskuratu zuen seniorretan. Gai nontzeko triatletek senior kategorian korrituko dute, junior adina duten Aiert Lizarralde eta Aitor Peña izan ezik.

Duatloiak ere bai

Neguko triatloian fondoko eskia, korrika

eta bizikleta tartekatzen badira, udako probetan eskia igeriketak ordezkatzeko du. Gazte hauek ez dute entrenatzailerik eta bere kontu entrentzen dute urte osoan zehar.

Gehienentzat aurtengo hau ez da lehenbiziko esperientzia izango, zenbaitzuk Astore taldean korritu izan baitute orainarte. Taldearen asmoa Euskadiko zein Espainiako udako Triatloi zirkuituko probak korritzea da. Bien bitartean, barrukaldeko hainbat herritan antolatzen diren

duatloiak korritzeari ekingo diote, uda helitzean ahalik eta formarik onenean egoteko helburuarekin.

Taldea zabalik

Antzuolako Triatloi Taldea kirol giroa sortu eta partaide gehiago izateko prest azaltzen da; momentuz gizonezko taldea izanik, emakumeek ere lekua izango lukete, eta taldeko partaide izateko pertsona interesaturik balego, taldekideren batengana jotzea baino ez duzue.

Mugica
Gozotegia

Artekale 3, Tfnoa 76 10 34

TOKI-ONA
Bodegoia-Taberna

Eguneroko janariak -
Txitxizotzak-Kazolatxoak-
Txabierroak

Matxiategi 1, Tfnoa: 76 39 53

anezka

Udaberrirako oihalak
eta lenzeria

Espoloia 8, Tfnoa: 76 59 25



Osintxuko katekesikoak Arantzazun

Gaur baino ume gehiago zegoen garaiak ziren dudarik gabe. Txiki eta haundi, 41 elkartu ziren 1.956ko abuztuaren 22an Osintxuko Katekesikoek Arantzazura egin zuten lehen bidai hartan. Hara nortzuk diren, ezkerretik eskumara:

Lehenengo ilaran: Jose Maria Gabilondo, Francisco Javier Astigarraga, Jose Mari Aperribai, Bonifacio Olabarria, Anton Salaberria "Txakarra", Alberto Elorza, Jose Maria Gantxegi "Gantxetxi", Benito Aperribai "Don", Jesus Maria Larrañaga, Gillermo Azkarate "Tejerua", Jabier Alberdi "Olabarrixa", Luis Aranberri eta Jabier Salaberria "Txakarra".

Bigarren ilaran: Bittor Gorrotxategi, Teresin Agirrezabal, Mari Sol Igartua, Arrate Azpiri, Belen Belastegi, Maria Jesus Epelde, Lourdes Barrutia, Kontxi Arza, Miren Izagirre, Mari karmen Arana, Arrate Garaikoetxea, Dina Barrutia, Itziar Salaberria eta Blanka Mari Agirrezabal.

Hirugarren ilaran: Jose Luis Gorrotxategi "Bertso", Benito Igartua, Sabina Aperribai, Sabinaren Bilboko lehengusua, Florita Gallastegi, Lolin Agirrezabal, Euletin Alberdi, Eugeni Azkarate, Mari Kontxi Garaiondo, Maria Elena Agirrezabal, Jeromina Agirrezabal eta Rosarito Villa.

*Estepan Plazaola
Argazkia: Elena Etxaniz*

**Aldoka
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi, BERGARA

FERNANDEZ



**Oihal puskak
Oihalak**

San Antonio 3
Tfnoa: 76 22 93

Ibargarai 2
Tfnoa: 76 53 22

LETE

TOLDOAK

Kataide Pol/Ind. 14. Pab.
☎ 79 23 83 ARRASATE
☎ 76 12 24 BERGARA
☎ (94) 681 76 19 IURRETA

ETXEBIZITZA

Harane Errekan garajea salgai. ☎ 76 39 11.

Pisua salgai Koldo Eleizalde 20an. ☎ 76 42 52 (gaueko 8etatik aurrera).

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 37 61 (arratsaldez).

Antzuolan pisua erosi-ko nuke. ☎ 76 62 36.

Pisua salgai Dr. Fleming kalean. ☎ 76 04 15 (iluntzeko 8etatik 10etara bitartean).

Etxebizitza salgai San Lorentzo 25ean. ☎ 76 31 35.

Pisua salgai Ozaetan. Ganbara, garaje eta guzti. ☎ 76 51 52.

Artekalen pisua salgai ☎ 76 55 63. Gauzez.

Garajea salgai Espalorian. ☎ 76 01 95.

Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ 76 03 31.

Pisua salgai Urteaga kalean. Sukaldea, 3 gela, saloia eta bainu gela. Amueblatuta. ☎ 76 14 87.

Garajea salgai. ☎ 76 39 11.

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 58 23.

Pisua alokatzen dut herriaren erdian. ☎ 76 44 35.

SALDU-EROSI

Yamaha SR-250-E, salgai, SS-AH matrikula. ☎ 76 52 30.

Adria 440 karabana salgai. Oso egoera onean. ☎ 76 43 98.

6-8 urtekoentzako Fondoko eski pare bat salgai. 5.000 pzta. ☎ 76 32 69.

Amnstrad konsola salgai, hiru jokurekin. ☎ 76 53 67.

Dantzaldietan, bodetan e.a.etan ibiltzen den taldeak teklista bat behar du. ☎ 73 01 17.

Trabesiako eskiak salgai: 1.85 metrokoak. Berri-berriak. ☎ 76 22 50.

Mendiko Kamet bota pare bat (44a) salgai. Oso merke. ☎ 76 24 64.

Hergo karabana salgai (4,20 metrotakoa eta ekipatuta). ☎ 76 17 61.

Ski alpinoko bota pare bat (43a) salgai. Berri-berriak, 2 hilabete. ☎ 76 38 72. Alex.

PENTAX ME Super, TAMRON 28-70 mm-ko objetibodun argazki makina salgai. METZ 20B3 flasha, funda, poltsa eta guzti. Manuala eta automatikoa. Berri-berria. ☎ 76 56 90 / 80 15 38.

Collie txakur-kumak salgai. ☎ 76 64 83.

Musika jotzeko bateria salgai. ☎ 76 53 55.

PENTAX objetiboa, 28-80, F: 3,5 salgai. 15.000 pzta. ☎ 76 28 55.

VIVITAR objetiboa, 70-210, F: 4-5,6 salgai. 10.000 pzta. ☎ 76 28 55.

3 pertsonarentzako Iglu kanping-denda berria salgai. ☎ 76 34 95.

R-5 kotxea salgai (SS-P matrikula). Kanpin remolke eta guzti, nahi izanez gero. ☎ 76 20 87 (goizez). ☎ 76 28 07 (arratsaldez).

SPECTRUM+2 bat salgai. 128 K eta 20 bat joku. 2 Joystick. 15.000 pezeta. ☎ 76 21 35.

LANA

Emakumezko euskaldun batek etxeetan interina lan egingo luke. ☎ 76 21 33.

Baserriko edota baserritik datorren gizon gaztea behar dut nekazaritzako produktuak saltzeko. ☎ 76 12 21.

Edozein motatako lanak makinaz edo ordenadorez pasatzen ditugu. ☎ 76 17 20 (Laura).

Mutil batek edozein motatako lanak egingo lituzke. ☎ 76 03 31.

Hildakoak

Ramon Zabaleta
martxoaren 12an, 65 urte.

Jaiotakoak

Aste honetan ez da inor jaiotzen Bergaran.

AUTOPULLMANS ARABA
Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 70

KIZKUR



Illepaindegia
Solariuma

Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32

Hemen duzu Europa mailako kotxe famatuena:

VOLKSWAGEN GOLF



Etor
zaitez
ikustera!!

LARRAÑAGA



 Autoak

HALTZARI


FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA

Harane Erreka 4
Tfnoa: (943) 76 30 57

BERGARA
(Gipuzkoa)



SUKALDERAKO ALTZARIAK



6 URTEKO
GARANTIA